

Kaixo, Esther! Egun on!

Azucena dut izena, berrogeita bost urte ditut, eta Burgelun bizi naiz.

Astebururo egiten duzun saioa entzuten dut. Uste dut oso interesgarria eta baliagarria dela, eta, entzuten dudan bakoitzean, ematen dituzun aholkuak kontuan hartzen saiatzen naiz.

Baziren bi hilabete lanera itzuli nintzela. Hiru seme-alaba dauzkat, bi seme eta alaba bat, eta orain arte etxean egon naiz seme-alabak zaintzen. Txikienak hamabi urte bete zituenean, erabaki nuen lanera itzultzea. Lehen, nire etxea zegoeneko hankaz gora zegoen, etxea txukun-txukun duten horietako bat ez naiz inoiz izan, nire lehentasuna seme-alaben hezkuntza izan da eta, baina orain oker baino okerrago dago. Seme-alabak direla, lana dela, ez daukat inoiz astirik etxea txukuntzeko. Horretaz gain, oso etxe txikian bizi gara. Batzuetan, neure buruari galdetzen diot nola bizi gaitezkeen etxe horretan.

Bart, oheratu baino lehen, alde batetik bestera nindoala seme-alaben arropa eta jostailuak jasoz, zure saioaz gogoratu nintzen eta, momentu horretan bertan, nahiz eta erabat nekatuta egon, gutun hau idazten hasi nintzen, aholku batzuk eskatzeko asmoz. Nire etxean bi armairu ditut, bata nire logelan dago eta bestea semeen logelan dago. Semeen logelan dagoen armairuan seme-alaben arropa guztia eta oinetako guztiak gorde behar ditut. Zein metodo erabili beharko nuke armairuaren espazioa aprobetxatzeko? Zure ustez, komenigarria da arropa eta oinetakoak leku berean gordetzea? Nola egin nezake seme-alabak txukuntze-lanetan inplika daitezen?

Beno, Esther. Besterik gabe, zure aholkuak laster jasoko ditudalakoan, agurtzen zaitut.

Azucena